# 171 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

## ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa**: identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azal tzen dena.

**2. mota: Aitortuaren erregistroa**. 2. motako erresgitroaren diseinua, apartatu hauetan eta foru agindu honetako eranskinean aurrerago azaltzen dena.

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitorpenean jasotzen diren aitortuak adina erregistro.

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldera lerrokatuko dira oro har, eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak bete gabe utziko dira.

Azaroaren 24ko 1014/2010 Foru Aginduaren bidez eguneratuta (GAO 2010/11/29)

# 171 EREDUA

## A. 1. motako erregistroa: AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA** |
| | | «1» konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA** |
| | | «171» konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA** |
| | | Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ** |
| | | Aitortzailearen IFZ jarriko da. |
| | | Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| 18-57 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN SOZIETATE IZENA** |
| | | Sozietate izen osoa jarriko da, anagramarik gabe |
| | | Inoiz ere ez da jarri behar eremu honetan izen komertzialik. |
| 58 | Alfabetikoa | **EUSKARRI MOTA** |
| | | Gako hauetako bat jarriko da: |
| | | «C»: Informazioa CD-Rean aurkezten bada. |
| | | «T»: Informazioa telematikoki aurkeztuz gero. |
| 59-107 | Alfanumerikoa | **HARREMANETARAKO PERTSONA** |
| | | Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | 59-67: Telefonoa: Bederatzi posizioko eremu numerikoa. |
| | | 68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. |
| 108-120 | | **ZURIUNEAK** |
| 121-122 | Alfabetikoa | **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA** |
| | | Aurkezten dena bigarren edo orderengo aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da nahitaez: |
| | | 121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren datuak sartzea bada. |
| | | 122. Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat baliogabetu eta erabat ordeztea bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake. |
| 123-135 | | **ZURIUNEAK** |
| 136-144 | Numerikoa | **AITORTUTAKO ERAGIKETEN KOPURUA, GUZTIRA** |

| | | |
|---|---|---|
| | | Aitorpena osatzen duten aitortuen erregistroen kopuru osoa (2. motako xehetasun erregistroa) jaso behar da. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da (2. motako erregistroen kopurua) |
| **145-161** | **Numerikoa** | **AITORTUTAKO ERAGIKETEN ZENBATEKO OSOA**<br>17 posizioko eremu numerikoa<br>Aitortuaren erregistroei dagokien «Eragiketaren zenbatekoa» eremuan (134tik 148ra bitarteko posizioak) adierazitako kopuruen batura osoa jarri behar da.<br>Zenbatekoak eurotan jarri behar dira. Zenbatekoak ez du inolako zeinurik eramango aurretik (+/-), ezta koma hamartarrik ere<br>Eremu hau bitan banatuta dago.<br><br>145-159 Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira.<br>160-161 Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. |
| **162-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira.
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira bete tzen, eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira.
* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

## 171 EREDUA

## B 1. motako erregistroa:

## AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| **1** | **Numerikoa** | **ERREGISTRO MOTA**<br>«1» konstantea. |
| **2-4** | **Numerikoa** | **AITORPEN EREDUA**<br>«171» konstantea. |

| | | |
|---|---|---|
| **5-8** | **Numerikoa** | **EKITALDIA**<br><br>Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| **9-17** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br><br>Aitortzailearen IFZ jarriko da<br><br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| **18-57** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEAREN SOZIETATE IZENA**<br><br>Sozietate izen osoa jarri behar da, anagramarik gabe<br><br>Inoiz ere ez da jarri behar eremu honetan izen komertzialik |
| **58** | **Alfabetikoa** | **EUSKARRI MOTA**<br><br>Gako hauetako bat jarriko da:<br><br>«C»: Informazioa CD-R batean aurkezten bada.<br><br>«T»: Informazioa telematikoki aurkezten bada |
| **59-107** | **Alfanumerikoa** | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br><br>Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>59-67: Telefonoa: Bederatzi posizioko eremu numerikoa.<br><br>68-107: Deiturak eta izena: Jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. |
| **108-120** | | **ZURIUNEAK** |
| **121-122** | **Alfabetikoa** | **AITORPEN OSGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA**<br><br>Aurkezten dena bigarren aitorpen bat edo ordezko aitorpen bat denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez:<br><br>121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren datuak sartzea bada<br><br>122: Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi bereko aurreko aitorpen bat baliogabetu eta erabat ordeztea bada. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake. |
| **123-135** | | **ZURIUNEAK** |
| **136-144** | **Numerikoa** | **AITORTUTAKO ERAGIKETEN KOPURUA, GUZTIRA**<br><br>Aitorpena osatzen duten aitortuen erregistroen kopuru osoa (2. motako xehetasun erregistroa) jaso behar da. Aitortu bat erregistro batean baino gehiagotan agertzen bada, zerrendaturik ageri den adina aldiz zenbatuko da (2. motako erregistroen kopurua). |
| **145-161** | **Numerikoa** | **AITORTUTAKO ERAGIKETEN ZENBATEKO**<br><br>17 posizioko eremu numerikoa.<br><br>Aitortuaren erregistroei dagokien «Eragiketaren zenbatekoa» eremuan (134tik 148ra bitarteko posizioak) adierazitako kopuruen batura osoa jarri behar da. |

| | | |
|---|---|---|
| | | Zenbatekoak EUROTAN jarri behar dira. Zenbatekoak ez du inolako zeinurik eramango aurretik (+/-), ezta koma hamartarrik ere.<br>Eremu hau bitan banatuta dago.<br>145-159 Zenbatekoaren zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarri.<br>160-161 Zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri |
| **162-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz bete behar dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko eta alfabetikoak bete gabe utzi behar dira
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.
* Eremuaren azalpenean kontrakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen,



# 171 EREDUA

## B 2. motako erregistroa:

## AITORTUAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| **1** | **Numerikoa** | **ERREGISTRO MOTA**<br>«2» (bi) konstantea. |
| **2-4** | **Numerikoa** | **AITORPEN EREDUA**<br>«171» konstantea. |
| **5-8** | **Numerikoa** | **EKITALDIA**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| **9-17** | **Alfanumerikoa** | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| **18-26** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN IFZ**<br>Fondoen ezarpen, erabilera edo kobrantza eragiketa egiten duen pertsonaren identifikazioa.<br>Pertsona fisikoa bada, aitortuaren IFZ jarriko da, uztailaren 15eko 64/2008 Foru Dekretuak, zentsu betebeharrak eta identifikazio fiskaleko zenbakiari dagozkionak garatzen dituenak, ezarritako erregelen arabera |

| | | |
|---|---|---|
| | | Aitortua pertsona juridikoa edo errenten esleipen erregimenera bildutako entitatea bada (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia), entitateari dagokion identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar da.<br><br>Adingabeak edo desgaituak identifikatzeko, adingabearen edo desgaituaren datuak jarri behar dira, bere identifikazio fiskaleko zenbakia eta bere legezko ordezkariarena barne sartuta.<br><br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira<br><br>Espainian emandako identifikazio fiskaleko zenbakiekin bakarrik bete behar da. |
| **27-35** | **Alfanumerikoa** | **LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ**<br><br>Aitortua adingabea edo desgaitua bada, bere legezko ordezkariaren IFZ (aita, ama edo tutorearena) jarri behar da eremu honetan. Eremu hau eskuinaldetik hasiko da bete tzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira.<br><br>Beste edozein kasutan, eremu honen edukia hutsu neak izango dira. |
| **36-75** | **Alfanumerikoa** | **AITORTUAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA EDO IZENDAPENA**<br><br>a) Pertsona fisikoak badira, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. Aitortua adingabea edo ezgaitua bada, eremu honetan adingabearen edo ezgaituaren deiturak eta izena jarriko dira. Pertsona fisikoek deitura bakarra dutenean, deitura hori jarriko da lehenik, gero tarte bat utziko da, eta izena idatziko da azkenik, hurrenkera horretan.<br><br>b) Pertsona juridikoak eta errenten esleipen erregimenera bildutako entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarri behar da, anagramarik gabe. |
| **76** | **Numerikoa** | **TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO KODEAREN GAKOA**<br><br>Hornidura elektrikoko kontratuari lotutako ondasunaren helbidea jarri behar da. Lurralde espainiarrek<br><br>Lurralde espainiarreko ez-egoiliarren kasuan, «Titularraren identifikazio kodea» (77-96 posizioak) zein agiritatik datorren aintzat hartuz, gako hauetako bat jarri behar da:<br><br>1 Pasaportea.<br>2. Sorburuko herrialdean balio duen nortasun agiria.<br>3. Bestelakoa. |
| **77-96** | **Alfanumerikoa** | **TITULARRAREN IDENTIFIKAZIO KODEA**<br><br>Lurralde espainiarreko ez-egoiliarren kasuan, «Aitortuaren IFZ» eremua (18tik 26ra bitarteko posizioak) edukirik gabe egon daiteke (alegia, zuriunez beteta). Alabaina, entitate erregistratuek pasaporte zenbakia edo sorburuko herrian balio duen identifikazio zenbakia adierazi behar dute kontua identifikatzeko, eta zenbaki hori eremu honetan jarri behar da, hala jasotzen baitute 1991ko abenduaren 27ko Aginduak, atzerriko transakzio ekonomikoei buruzko abenduaren 20ko 1816/1991 Errege Dekretua garatzekoak (ikus abenduaren 31ko statuko Aldizkari Ofiziala argitaratuak) eta Espainiako Bankuak otsailaren 25ean emandako 1/1994 Zirkularrak (martxoaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuak). |

| | | |
|---|---|---|
| **97-98** | **Alfabetikoa** | **HERRIALDE KODEA**<br><br>Lurralde espainiarreko ez-egoiliarren kasuan, aitortuaren helbideari dagokion herrialde edo lurraldearen kodea jarri behar da, 291 ereduari buruzko abenduaren 2ko 1060/2008 Foru Aginduak III. eranskinean jasotako herrialde gakoen arabera.<br><br>Egoiliarren kasuan, aldiz, 97 eta 98 posizioak zuriunez bete behar dira |
| **99** | **Alfabetikoa** | **AITORTUAREN GAKOA**<br><br>Gako hauetako bat jarri behar da:<br><br>T Kontuaren titularra.<br>A Baimendua.<br>O Bestelakoak. |
| **100** | **Alfabetikoa** | **KODE MOTAREN GAKOA**<br><br>Kontuaren identifikazioaren arabera, gako hauetako bat jarri behar da:<br><br>C Bezero kontuaren kodearen identifikazioa (BKK). Identifikazio hori derrigorrezkoa izango da aitortzen duten entitateak Espainiako Bankuaren entitate erregistroan inskribatuta daudenean<br><br>O Beste identifikazio bat. |
| **101-104** | **Alfanumerikoa** | **IBAN KODEAREN AURRIZKIA**<br><br>«Kode motaren gakoa» eremuan «C» jarri bada, IBAN kodea (kontu bankarioaren nazioarteko kodea) adierazi behar da eremu honetan.<br><br>Eremu hau bitan banatzen da:<br><br>101-102 Herrialde kodea (ISO): Eremu alfabetikoa<br>103-104 Kontrol digituak.<br><br>Banku jaulkitzaileak ez badio aitortzaileari entitatearen koderik eman eta, beraz, IBAN koderik ez badu, bete gabe utziko da eremu hau. |
| **105-124** | **Numerikoa** | **BEZERO KONTUAREN KODEA (BKK)**<br><br>Hauxe jarriko da:<br><br>1. Kontua bezero kontuaren kodearekin (BKK) identifikatzeko<br><br>Honela egituratua dago:<br><br>105-108 Entitate kodea.<br>109-112 Sukurtsal kodea<br>113-114 Kontrol kodea<br>115-124 Kontu zenbakia<br><br>2. Banku jaulkitzaileak ez badio aitortzaileari entitatearen koderik eman, entitateak definitutako identifikazioa adierazi behar da. |
| **125-132** | **Numerikoa** | **ERAGIKETAREN DATA**<br><br>Ondasunaren data jarri behar da. Horretarako, urtearen lau digituak, hilaren biak (01 - 12) eta egunaren bi digituak (01 - 31) adierazi behar dira, UUUUHHEE formatuan. |

| | | |
|---|---|---|
| **133** | **Alfabetikoa** | **ERAGIKETA GAKOAK**<br><br>Gako hauetako bat jarri behar da:<br><br>A Ezarpena.<br>B Erabilpena.<br>C Kobrantza<br>D Ordainketa. |
| **134-148** | **Numerikoa** | **ERAGIKETAREN ZENBATEKOA**<br><br>15 posizioko eremu numerikoa<br><br>Eragiketaren zenbatekoa jarri behar da.<br><br>Zenbatekoak eurotan jarri behar dira.<br><br>Eragiketa euroz besteko moneta batean izendatuta badago, zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa ote den zehazteko, eurotako kontrabalioa Europako Banku Zentralak argitaratu eta Espainiako Bankuak komunikatutako euroaren kanbio ofizialaren arabera zehaztu beharko da.<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago.<br><br>130-146: Eragiketaren zenbatekoaren zati osoa; edukirik ez badu, zeroz bete behar da<br><br>147-148: Eragiketaren zenbatekoaren zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarri behar dira. |
| **149-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.